

GIG 33

ITZURUNTXIKIKO HIGADURA-FORMAK

BALIO INTRINTSEKOA: **2,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,63**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Harrizko hondartza da Itzuruntxiki, eta olatuen danbatekoek nahiz harribilien etengabeko kolpeek itsaslabarren oinean zenbaterainoko azpijana eta zuloak egin ditzaketen ohartzeko adibide ugari eta ikusgarriak ditu.

Talaimendiko hormatzarrear (tupak, kareharriak eta turbidita finak ditu txandakatuta), 20 metro inguru luzeko azpijan jarraitu bat ageri da, higadurazko *notch* ere baderitzona. Itsaslabarraren oinean dagoen zati higatu horrek 2 metroko altuera du, eta 1,5 metroko sakonera. Azpijan horrek itsaslabarrari egonkortasuna kentzen dio, eta denborarekin luizi handiak gertatzea eragin dezake.

Oineko azpijana dagoen lekutik iparralderantz berrogeita hamar metro harago, segida askoz tupatsua goa da, eta turbiditak, aurrekoak baino lodiagoak, tartekatuago ageri dira. Litologia horrelakoa izateak higadura ere beste modu batekoa izatea eragiten du: zulo bakartu eta sakon samarrak sortu dira hare-harrizko geruzen arteko leku tupatsuetan. Hemengo zati higatuek 3 metrotik gorako altuera dute, eta sakonagoak ere badira.

NOLA BERTARATU

Itzurungo ipar-ekialdera joateko bidean behera jaitsi behar da lehenbizi, eta gero, handik Itzuruntxikira igaro. Ura behe samarrean dagoenean soilik joan daiteke.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ edo Itzurun hondartza.



Itzuruntxikiren hasieran sortu den higadurazko *notch* jarraituaren ikuspegia.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):
X= 560078 m / Y= 4794531 m / Alt.= 11 m



Segidako zati tupatsuetan sortu diren higadurazko zuloetako batzuk.